País Vasco	*1*	*Tipo 1 - hasta 40.000 ha*
La Rioja	*1*	*Tipo 1 - hasta 40.000 ha*
Valencia	*1*	*Tipo 3 - hasta 200.000 ha*
Total	*19*	

II. ERANSKINA

FINANTZIAZIO-BAREMOAK

NBEFk autonomia-erkidegoek hautatutako guneetan egiten diren lanetarako hitzartutako zenbateko unitarioei aplikagarri zaien likidazioaren guztizko zenbatekoa ordainduko dio enpresa kontratistari.

Autonomia-erkidegoek ondorengo finantziazio-baldintzen ondoriozko zenbatekoak ordainduko dizkiote NBEFri.

Autonomia-erkidegoek, kontrolgune bakoitzeko, honakoak finantzatuko dituzte: oinarrizko zenbateko bat gune bakoitzeko azalera erabilgarriaren arabera eta, kasuaren arabera, zenbateko gehigarri bat, guneak probintzia bat baino gehiago hartzen badu, enpresa kontratistak egindako bisita azkarrari dagokion zenbatekoa, bisita azkarraren emaitzak grabatzearen zenbatekoa hori autonomia-erkidegoak egin badu, eta olibadirako laguntzaren kontrolari dagokion zenbatekoa, bisita azkarrarekin edo hura gabe, gune baliagarriko olibadiaren azaleraren arabera, honako taula hauen arabera:

ANEXO II

BAREMOS DE FINANCIACIÓN

El FEGA abonará a la empresa contratista el montante total de la liquidación que resulte de la aplicación de los importes unitarios acordados a los trabajos que se realicen en las zonas seleccionadas por las Comunidades Autónomas.

Las Comunidades Autónomas resarcirán al FEGA en los importes que resulten de las condiciones de financiación siguientes.

Las Comunidades Autónomas financiarán, por cada zona de control, un importe básico en función de la superficie útil de cada zona, y según el caso, un importe adicional si la zona cubre más de 1 provincia, un importe en concepto de la Visita Rápida realizada por la empresa contratista, un importe de grabación de los resultados de visita rápida, cuando ésta sea realizada por la Comunidad Autónoma, y un importe en concepto del control de la ayuda al olivar, con y sin visita rápida, en función de la superficie de olivar en la zona útil, de acuerdo con los siguientes cuadros:

Gune-mota (gune baliagarriaren azalera)	Oinarrizko zenbatekoa (probintzia bat)	Zenbateko gehigarria (bi probintzia)	Bisita azkarrari dagokion zenbatekoa	Autonomia-erkidegoak egindako bisita azkarraren emaitzak grabatzearen zenbatekoa
1. motako gunea (40.000 ha-raino)	67.200 euro	5.565 euro	36.750 euro	7.875 euro
2. motako gunea (90.000 ha-raino)	94.500 euro	6.300 euro	48.300 euro	9.030 euro
3. motako gunea (200.000 ha-raino)	115.500 euro	7.350 euro	52.500 euro	10.500 euro

Tipo de zona (superficie zona útil)	*Importe Básico 1 provincia*	*Importe adicional 2 provincias*	*Importe en concepto de Visita Rápida*	*Importe grabación resultados VR realizada por la C. Autónoma*
Zona Tipo 1 (hasta 40.000 ha)	*67.200 euros*	*5.565 euros*	*36.750 euros*	*7.875 euros*
Zona Tipo 2 (hasta 90.000 ha)	*94.500 euros*	*6.300 euros*	*48.300 euros*	*9.030 euros*
Zona Tipo 3 (hasta 200.000 ha)	*115.500 euros*	*7.350 euros*	*52.500 euros*	*10.500 euros*

NPIGS lursaila	Kontrola, bisita azkarrarekin	Bisita azkarrik gabe
Gune baliagarriko olibadia		
>1.000 ha eta <= 10.000 ha	21.000 euro	15.750 euro
>10.000 ha eta <= 20.000 ha	31.500 euro	24.150 euro
>20.000 ha	42.000 euro	31.500 euro

Superficie SIGPAC	*Control con visita rápida*	*Sin visita rápida*
De olivar en zona útil		
> 1.000 ha y <= 10.000 ha	*21.000 euros*	*15.750 euros*
> 10.000 ha y <= 20.000 ha	*31.500 euros*	*24.150 euros*
> 20.000 ha	*42.000 euros*	*31.500 euros*

Gune baliagarritzat hartzen da gunearen barruan sartutako eta kontrolatzeko hautatutako udalerri edo industrialdeetako azalera (EINen arabera).

Se entiende por zona útil a la superficie (según INE) de los municipios, ó en su caso de los polígonos, seleccionados para la realización del control, incluidos dentro de la zona.

JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN AZAROAREN 27KO 22/2009 EBAZPENAREN III. ERANSKINA

LANKIDETZA HITZARMENA SUSTAPEN MINISTERIOAREN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ARTEAN, 2009KO IRAILAREN 1EAN. SINATZEN DUTE: GEOGRAFI INSTITUTU NAZIONALAREN ZUZENDARITZA NAGUSIAK ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRRALDEAREN ESPARRUAN KARTOHIRIAREN PROIEKTUA GARATZEKO BEHAR DEN GEOGRAFIA INFORMAZIOA HARMONIZATZEKO LANETARAKO

Madril, 2009ko irailaren 1a.

PARTE HARTU DUTE

Batetik,

María del Pilar Unzalu Pérez de Eulate andrea, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburua, lehendakariak maiatzaren 8ko 13/2009 Dekretuaren bidez, hala izendatu baitzuen (maiatzaren 9ko EHAA), Euskal Herriko Administrazio Orokorraren izenean eta haren ordezkari gisa, horretarako baimena eman baitio Jaurlaritzaren Kontseiluak 2009ko uztailaren 14an izandako bilkuran.

Bestetik,

Alberto Sereno Álvarez jauna Geografia Institutu Nazionaleko zuzendari nagusia (aurrerantzean GIN) eta Geografia Informazioko Zentro Nazionalaren lehendakariak (aurrerantzean GIZN), irailaren 27ko 1010/2002 Errege Dekretu bidez hala izendatu baitzuten; Sustapen ministroak 2004ko urriaren 19an emandako Aginduan xedatutakoaren arabera (2004ko azaroaren 3ko Estatuko aldizkari ofiziala, 265. zk.) Estatuko Administrazio Orokorraren izenean eta haren ordezkari gisa aritzeko eskumen batzuk eskuordetu baizitzaizkion; eta 1243/1990 Errege Dekretuan ezarritakoari jarraituz (1990eko urriaren 17ko EAO, 249. zk.).

Bi aldeek elkarri aitortu diote beharrezko legegaitasuna, bakoitzari dagokion jardunaren arabera, berariazko hitzarmen hau izenpetzeko eta ondorioz, honakoa

ANEXO III A LA RESOLUCIÓN 22/2009, DE 27 DE NOVIEMBRE, DEL DIRECTOR DE A SECRETARÍA DEL GOBIERNO Y DE RELACIONES CON EL PARLAMENTO

CONVENIO DE COLABORACIÓN CON EL MINISTERIO DE FOMENTO Y LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DEL PAÍS VASCO (DIRECCIÓN GENERAL DEL INSTITUTO GEOGRAFICO NACIONAL),PARA LA REALIZACIÓN DE LOS TRABAJOS DE ARMONIZACIÓN DE INFORMACIÓN GEOGRÁFICA NECESARIOS PARA EL PROYECTO CARTOCIUDAD EN EL ÁMBITO TERRITORIAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO

Madrid, a 1 de setiembre de 2009.

INTERVIENEN:

De una parte,

D.ª María del Pilar Unzalu Pérez de Eulate, Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, en virtud de su nombramiento mediante Decreto 13/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari (BOPV de 9 de mayo) en nombre y representación de la Administración General del País Vasco, habiendo sido autorizada a tal efecto por el Consejo de Gobierno en su sesión de 14 de julio de 2009.

Y de otra parte,

D. Alberto Sereno Álvarez, Director General del Instituto Geográfico Nacional (en adelante IGN) y Presidente del Centro Nacional de Información Geográfica, (en adelante CNIG), en virtud de su nombramiento por el Real Decreto 1010/2002, de 27 de septiembre (BOE núm. 233, de 28-09-2002), y de acuerdo con lo dispuesto en la Orden de 19 de octubre de 2004, de la Ministra de Fomento (BOE núm. 265, de 3 de noviembre de 2004), por la que se delegan determinadas competencias en el Director General del IGN, en nombre y representación de la Administración General del Estado, y de lo establecido en el Real Decreto 1243/1990 (BOE núm. 249, de 17 de octubre de 1990).

Ambas partes se reconocen mutuamente, en la calidad con que cada uno interviene, la capacidad legal necesaria para la suscripción de este Convenio Específico y, a tal efecto,

AZALDU DUTE:

1.– Sustapen Ministerioaren oinarrizko egitura organikoa ezartzen duen ekainaren 18ko 1476/2004 Errege Dekretuak bere 13. artikuluaren bidez GINi ematen dizkion zereginen artean dago Mapa Topografiko Nazionalaren serie kartografiko nazionalak osatu eta eguneratzea 1/25.000 eta 1/50.000 eskalatan; datu espazialen azpiegitura nazionalak, datu-base kartografiko numerikoak eta lurzoruaren eredu digitalak zaindu eta ustiatzea; eta Geografi Informazio Sistema Nazionala diseinatu, mantendu eta ustiatzea.

2.– Erreferentziazko geografia informazioak gaur egun behar duen koherentzia izan dezan, informazio hori existitzen den lurralde esparruan gaikako edozein geografia informaziorako substratu izango dena, ahalegin handia egin behar da informazio-koherentzia hori eta harmonizazioa lortzeko. Geografia informazio sistema edozein dela ere, erreferentzia mota horretan funtsezko garrantzia izango du 1:25.000 eskalan Base Kartografiko Numerikoan jasotako informazioak (aurrerantzean BKN), batez ere garraio sareei, pertsonen bizilekuei eta interes ekonomikoei buruzkoak; higiezinen katastroan jasotakoak, bereziki hirien eremukoak; izan ere BKN25ek jabetzaren banaketaren erreferentzia eta lurraldearen balio ekonomikoaren gainean ematen duen informazioaz gain, katastroak bestelako informazio osagarria ere ematen baitu; eta posta-helbide, errolda-barruti eta sekzioei nahiz posta barrutiei buruzko informazioa. Horregatik, oso garrantzitsua da erreferentziazko datu mota horien koherentzia eta harmonizazioa ziurtatzea, Espainiako lurralde osoan garatzen diren geografia informazioko ia sistema guztien substratu izan daitezkeelako. Ondorioz, Gin Kartohiriaren proiektua garatzen ari da datu mota horiek guztiak harmonizatzeko, Estatuko Administrazio Orokorreko eta autonomia erkidegoetako beste organo eta erakunde batzuekin lankidetzan.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoak, Euskal Estatistika Erakundearen (Eustat) bidez, Kale-izendegi ofizial bat du eguneratuta 2007. urtez geroztik, kaleen izen eta atari ofizialekin. Bestalde, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak komunikabideei buruzko informazioa ematen du. Kaleen, atarien eta komunikabideen erreferentziazko eskala 1:5.000 da.

4.– Bi aldeek interesa dute Kartohiriaren proiektua garatzeko behar den informazio guztia koordinatu,

EXPONEN:

1.– Que el IGN, entre otras funciones que le asigna el artículo 13 del Real Decreto 1476/2004, de 18 de junio (BOE núm. 148, de 19-06-2004), por el que se desarrolla la estructura orgánica básica del Ministerio de Fomento, tiene la de formación y actualización de las series cartográficas nacionales del Mapa Topográfico Nacional a escalas 1/25.000 y 1/50.000, y producción de la demás cartografía básica, tanto digital como analógica, y derivada, así como la producción, conservación y explotación de la infraestructura nacional de datos espaciales, y de bases cartográficas numéricas y modelos digitales del terreno, y diseño, mantenimiento y explotación del Sistema de Información Geográfica Nacional.

2.– Que la exigencia actual de coherencia de la información geográfica de referencia, que debe actuar como sustrato de cualquier información geográfica de carácter temático que se realice en el ámbito territorial en el que exista aquélla, obliga a que se realice un importante esfuerzo para conseguir dicha coherencia y su armonización en toda ella. Entre este tipo de información de referencia tienen una importancia fundamental, para cualquier sistema de información geográfica, la contenida en la Base Cartográfica Numérica 1:25.000, en adelante BCN25, especialmente la referente a redes de transportes y los asentamientos humanos y de interés económico, la contenida en los Catastros Inmobiliarios, especialmente en los correspondientes al ámbito urbano que además de suministrar la referencia de la distribución de la propiedad y del valor económico del territorio, incorporan información adicional a la que aporta BCN25, y la referente a las direcciones postales, así como la correspondiente a las secciones y distritos censales y a los distritos postales. Por eso, es de gran importancia asegurar la coherencia y armonización de estos tipos de datos de referencia, que pueden actuar como sustrato de casi todos los sistemas de información geográfica que se desarrollan sobre el territorio español. En consecuencia, el IGN viene desarrollando, en colaboración con otros órganos y organismos de la Administración General del Estado y de Administraciones Autonómicas, el proyecto Cartociudad de armonización de los tipos de datos geográficos de referencia especificados anteriormente.

3.– Que, la Comunidad Autónoma del País Vasco a través del Instituto Vasco de Estadística (Eustat), mantiene actualizado un Callejero Oficial con calles y portales oficiales desde el año 2007. Por otra parte el Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes aporta la información referente a vías de comunicación. La escala de referencia tanto de las calles y portales como vías de comunicación es la escala 1:5.000.

4.– Que es de interés de ambas partes proceder a coordinar las informaciones necesarias para el proyec-

bi Administrazioen beharrak gogobeteko dituen produktu bat lortu eta proiektua bideratzeko behar den kudeaketa eta gastua optimizatzeko.

5.– Bi Administrazioek lankidetzarako protokolo nagusi bat hitzartua dute eta horren barruan gauzatu da Berariazko Hitzarmen hau.

6.– Horrenbestez, bi aldeek Berariazko Hitzarmen hau sinatzea adostu dute, ondorengo klausulei jarraituz:

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Berariazko Lankidetza-Hitzarmenaren helburua.

Berariazko Lankidetza-Hitzarmenaren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde esparruan Kartohiria proiektua burutzeko behar den geografia informazioa harmonizatzeko lanak egitea.

Bigarrena.– Berariazko Hitzarmena gauzatzea.

Berariazko Hitzarmen honen 1. eranskinean Agiri Tekniko gisa erantsitako zehaztapenei jarraituz, GINek eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak elkarlanean burutuko dute geografia informazioaren harmonizazioa, honako datuez osaturik egongo dena: BKN25eko datuak, Euskal Estatistika Erakundearen (Eustat) Kaleizendegia, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko komunikabideak, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko datu-base topografikoa, errolda-sekzio eta barrutiena, posta-helbide eta posta-barrutiena. Modu horretara, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde eremuko hiri eta populazioguneetako errepide sarearen datu-base ofiziala eratuko da, GISen egitura tipologikoa duena, lagundutako nabigazioa eta hainbat erabilera tematiko ahalbidetuko dituen bide eta testu-informazioarekin; jarraipen geografikoa bermatuta izango du gainera.

Autonomia Erkidegoaren mugen barruan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren Base Topografiko Harmonizatuaren (BTH5) eta GINen BKN25en arteko jarraipena ziurtatuko da; lanak 2. eranskineko zehaztutako egutegiaren arabera egingo dira.

Euskal Autonomia Erkidegoak baditu (Eustat) Euskal Estatistika Erakundeak mantentzen duen Kale-izendegi ofiziala eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren errepide-sarea; hori izango da Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuko datuak eratzeko

to Cartociudad para obtener un producto que satisfaga las necesidades de las dos Administraciones, optimizando de esta manera la gestión y el gasto que comporta satisfacer la demanda generada con el proyecto citado.

5.– Que ambas Administraciones tienen suscrito un Protocolo General de colaboración en cuyo desarrollo se inscribe este Convenio Específico.

6.– Por todo ello, ambas partes resuelven, de mutuo acuerdo, suscribir el presente Convenio Específico, con arreglo a las siguientes

CLÁUSULAS

Primera.– Objeto del Convenio Específico de Colaboración.

El presente Convenio Específico de Colaboración tiene por objeto la realización de los trabajos de armonización de información geográfica necesaria para la ejecución del proyecto Cartociudad en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Segunda.– Realización del Convenio Específico.

Conforme a las especificaciones que se incluyen como Documentación Técnica en el anexo 1 de este Convenio Específico, el IGN y el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca de la Administración General del País Vasco, conjuntamente, llevarán a cabo la armonización de la información geográfica constituida por datos de BCN25, del callejero del Instituto Vasco de Estadística (Eustat), de las vías de comunicación del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes de la Administración General del País Vasco, y de la base topográfica del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Territorio de la Administración General del País Vasco, así como de secciones y distritos censales, direcciones postales y distritos postales. De esta manera se constituirá la Base de Datos Oficial de red viaria, con estructura topológica de SIG, de ciudades y núcleos de población del ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, con viales e información textual que permitirá la navegación asistida y diversos usos temáticos, con continuidad geográfica asegurada.

En los límites de la Comunidad Autónoma se asegurará la continuidad entre la Base Topográfica Armonizada (BTA5) del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca de la Administración General del País Vasco, y la BCN25 del IGN, desarrollando los trabajos conforme al calendario especificado en el anexo 2.

La Comunidad Autónoma del País Vasco ya dispone de un callejero oficial mantenido por el Instituto Vasco de Estadística (Eustat) y una red viaria del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, de forma que será ésta la información base a

erabiliko den oinarrizko informazioa. Modu horretara, informazio desberdinen arteko harmonizazioa eta eguneratzea ziurtatzeko eta gastuen optimizazioa lortzealdera, ez da kartografia berri bat editatu beharrik izango Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan Kartohiria eratzeko, honako kasu hauetan izan ezik: informazioa Kartohiriaren datuen eredura egokitzeko lanak, Eusko Jaurlaritzako Sailen datuak harmonizatzea, BKN25 erreferentziazko basea Euskal Autonomia Erkidegoko mugetan harmonizatzea, eta postakodeen geruza eratzea.

Hauxe izango da entregatu beharreko geruzen koordinatu mota: Geografia koordinatuak Datum ETRS89-rekin.

Hirugarrena.– Euskal Herriko Administrazio Orokorraren Betebeharrak

Hitzarmen honen bigarren klausulan ezarritakoa garatuz, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak bere gain hartuko du ondoren zehazten diren produktuak egiteko zeregina aurreko klausulan zehaztutako lurralde eremuetarako eta eranskineko Agiri Teknikoan jasota dauden zehaztapenen arabera, bere bitarteko propioak erabiliz edota lankidetza eta hirugarren batzuen kontratazio bidez.

• «Kaleen» erdiko geruza.

• «Errepideen» erdiko geruza.

• «Callcarr» erdiko geruza kale/errepideen ardatzekin, doitze geometrikoak egin ondoren.

• «Atarien» erdiko geruza.

• «Toponimiaren» azken geruza.

• «Atari-KPen» azken geruza.

• Zatien azken geruza, zatiekin eta komunikabideen BIDE taularekin lotua.

• Bidegurutzeen azken geruza, kaleen gurutzaketekin eta Cruce_Calle taularekin; taula horretan kalegurutzaketa bakoitza zatiekin lotuta dago.

• Masaren azken geruza, birsailkatzea egin ondoren.

• Lerro laguntzaileen LIN_AUX azken geruza, sailkapenarekin.

• Poligonoen Errolda-Sekzioen azken geruza, errolda-barruti eta sekzioekin.

• Poligonoen Posta Kodeen azken geruza, posta-barrutiekin.

• Tramo_Vial taula, bi udalek erabiltzen dituzten errepideentzako.

Kartohirian jasotako informazioa mantentzen eta eguneratzen dela bermatu eta errazteko metadatuak

partir de la cual se generará la información del Cartociudad en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco. De esta forma y con el objetivo de asegurar la armonización entre informaciones, su actualización y la optimización del gasto, los trabajos realizados para generar el Cartociudad en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco no implicarán la edición de cartografía nueva, a excepción de los trabajos necesarios para la adecuación al modelo de datos del Cartociudad, la armonización de los datos entre los Departamentos de Gobierno Vasco, la armonización con la base de referencia de BCN25 en los límites de la Comunidad Autónoma del País Vasco y la generación de la capa de códigos postales.

El tipo de coordenadas y Sistema de Referencia Espacial de las capas a entregar será: coordenadas geográficas con Datum ETRS89.

Tercera.– Obligaciones de la Administración General del País Vasco.

En desarrollo de lo establecido en la cláusula segunda de este Convenio, el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca de la Administración General del País Vasco asumirá, por sus propios medios o mediante colaboración o contratación con terceros, conforme a las especificaciones contenidas en la Documentación Técnica del anexo, para los ámbitos territoriales especificados en la cláusula anterior, la realización de los siguientes productos:

• La capa intermedia «Calles».

• La capa intermedia «Carreteras».

• La capa intermedia «Callcarr» con los ejes de las calles/vías una vez realizados los ajustes geométricos.

• La capa intermedia de «Portales».

• La capa final de «Toponimia».

• La capa final «Portal-Pk».

• La capa tramo final asociada a los tramos y la tabla vial de las vías de comunicaciones.

• La capa Cruce final con los cruces de calles y la tabla Cruce_Calle en la que se asocia a cada cruce de calle con los tramos.

• La capa Masa final una vez reclasificada.

• La capa final LIN_AUX de líneas auxiliares con la clasificación.

• La capa final SSCC de polígonos con los distritos y secciones censales.

• La capa final CCPP de polígonos con los distritos postales.

• La tabla Tramo_Vial únicamente para viales que compartan dos municipios.

Para garantizar o facilitar el mantenimiento y actualización de la información contenida en Cartociu-

sortu behar dira produktuaren ezaugarriak, erabili diren iturriak, iturri horien gain aplikatu diren prozesuak, lanketaren ardura duten erakundeak deskribatuko dituztenak.

Produktu guztiak formatu digitalean entregatuko dira, eta memoria tekniko bat ere aurkeztuko da alor desberdinetan erabilitako prozesuak eta teknikak deskribatzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorreko Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak bere gain hartuko du bosgarren klausulan zehaztutako gastuaren % 25.

Laugarrena.– Geografia Institutu Nazionalaren betebeharrak.

GINek BKN25en informazioa emango du, batez ere sare hidrografikoei, garraioari eta biztanle-entitateei buruzkoa.

GINek Proiektua zuzentzeko pertsona bat izendatuko du, proiektuaren plangintza ezagutu beharko duena eta ekintza guztien jarraipena egiteaz, kalitatearen kontrolaz eta Berariazko Hitzarmen honen helburuko lanen emaitzak onartzeaz arduratuko dena. Bere zeregin nagusiak izango dira Agiri Teknikoak interpretatzean sortzen diren zalantzak argitzea, erabilitako metodoen aldaketetan aholkularitza ematea baldin eta aldaketok behar bezainbesteko kalitate edo bermerik eskainiko ez balute, eta lanen garapenean behar bezainbat ikuskaritza egitea.

GINek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak egindako produktuak jaso eta ezarritako kalitate kontrolaren bidez balidatuko ditu; ondoren proposatzen dituen oharrak eta zuzenketak Sailari bidaliko dizkio idatziz, behar diren aldaketak egin ditzan. Egin beharreko zuzenketak direla-eta Erabakia sinatzen duten bi erakundeen artean desadostasunak baleude, 8. klausulan ezarritako Jarraipen Batzordeak erabakiko du jarraitu beharreko prozedura.

GINek bere gain hartuko du Bosgarren Klausulan zehaztutako gastuaren % 75.

Bosgarrena.– Berariazko Hitzarmena gauzatzeko gastua.

Berariazko Hitzarmen hau gauzatzeko egin beharreko lanen gastua ehun eta hirurogeita hamazortzi mila eurokoa izango da gehienez.

Berariazko Hitzarmen honen Zortzigarren Klausulan ezarritako Jarraipen Batzordeak finkatuko du proiektuaren benetako gastua, goian gehienez ezarri den gastuaren parekoa edo txikiagoa izango dena, eta Berariazko Hitzarmen honen sinatzaileek euren gain hartuko dutena, Hirugarren eta Laugarren Klausuletan ezarritakoari jarraituz.

dad se han de generar los metadatos que describan las características del producto, las fuentes utilizadas para su creación, los procesos aplicados sobre las fuentes, las entidades responsables de su elaboración.

Todos los productos se entregarán en formato digital, acompañados de una memoria técnica en la que se describan los procesos y técnicas utilizadas para la realización de las distintas tareas.

El Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca de la Administración General del País Vasco asumirá el 25% del gasto especificado en la cláusula quinta.

Cuarta.– Obligaciones del Instituto Geográfico Nacional.

El IGN aportará la información de BCN25, especialmente la información correspondiente a las redes hidrográficas y de transporte y a las entidades de población.

El IGN designará una persona que dirija el Proyecto, que deberá conocer la planificación del proyecto, y se ocupará del seguimiento de las actividades, del control de calidad y de la aceptación de los resultados de los trabajos objeto del presente Convenio Específico. Sus misiones principales serán la de resolver dudas en la interpretación de la Documentación Técnica, asesorar en la modificación de los métodos empleados, si éstos no ofreciesen la calidad y garantía exigidas, y realizar cuantas inspecciones crea necesarias durante el desarrollo de los trabajos.

El IGN recibirá los productos realizados por el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca de la Administración General del País Vasco y los validará mediante el control de calidad que establezca, remitiendo por escrito al citado Departamento los comentarios y correcciones que a tal efecto proponga para que ella proceda a su rectificación. En caso de discrepancia entre los dos organismos firmantes del Acuerdo en cuanto a las correcciones a realizar, la Comisión de Seguimiento establecida en la cláusula 8, determinará el procedimiento a seguir.

El IGN asumirá el 75% del gasto especificado en la cláusula Quinta.

Quinta.– Gasto de realización del Convenio Específico.

El gasto de la realización de los trabajos requeridos por el presente Convenio Específico se fija en un máximo de ciento setenta y ocho mil euros.

La Comisión de Seguimiento que se establece en la Cláusula Octava de este Convenio Específico, fijará el gasto efectivo del proyecto, que deberá ser igual o inferior al gasto máximo fijado anteriormente, y que será asumido por las partes firmantes del Convenio Específico conforme a lo establecido en las Cláusulas Tercera y Cuarta del mismo.

Seigarrena.– GINen ekarpena koprodukzioan.

Urteko Aurrekontu Orokorretako 17.18.495A.620 aurrekontu kontzeptuaren kargura eta Laugarren Klausulan ezarritakoari jarraituz, produktuak egin ahala GINek dagokion diru-zenbatekoa ordainduko dio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari, Bosgarren Klausulan urteko gastuari erantzuteko ezarritakoaren arabera. Gehienez ere:

- 2009ko ekitaldian 51.000 euro.
- 2010eko ekitaldian 82.500 euro.

Hitzarmen honen xedeko lanak hasi ondoren egingo du GINek 2009ko ekitaldiari dagokion ordainketa; bigarren ordainketa eta azkena, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak 2010ean lanak amaitu, GINi entregatu eta lan osoari dagozkion datu eta agirien kalitate kontrola gainditzen dutenean.

Zazpigarrena.– Informazioaren jabetza.

Berariazko Hitzarmen hau sinatzen duten bi aldeak hitzarmenaren ondoriozko informazio eta produktuen jabekide izango dira.

Alde bakoitzak ohiko bideak erabiliz edo internet bidez banatu ahal izango ditu bai informazioa bai hitzarmen honen ondoriozko produktuak zuzenean edota jatorrizko produktuetatik eratorritako beste batzuk, doan edo kostuarekin, berak edo hirugarren batzuen bidez merkaturtuta, euskarri digitalean edo paperean.

Berariazko Hitzarmen honen ondoriozko informazioa eta produktuak kostuarekin merkaturatzen badira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak eta GINek GIZN erakunde autonomoaren bidez, harmonizatuko dituzte bakoitzarentzako ezarritako prezio publikoak.

Era berean, aurreikusitako lanekin lortutako txosten, agiri, informazio lagungarri eta beste edozein informazioa bi aldeen jabetzakoa izango da eta ezingo dira agiri horretan ezarritakoaz bestelako helburutarako erabili, beste aldeak aurretiaz eta berariaz horretarako baimenik eman ezean.

Zortzigarrena.– Jarraipen Batzordea.

Berariazko Hitzarmena sinatzean, Jarraipen Batzorde bat ezarriko da alde bakoitzeko hiru kidek osatua.

Estatuko Administrazio Orokorraren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko 6/1997 Legearen 27. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, Autonomia Erkidegoko Estatu-ordezkariaren ordezkari batek egon

Sexta.– Contribución del IGN a la coproducción.

Con cargo al concepto presupuestario 17.18.495A.620 del Presupuesto General anual, y de acuerdo a la realización de los productos, conforme a lo establecido en la cláusula cuarta, el IGN abonará al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca de la Administración General del País Vasco la cantidad correspondiente a lo establecido en la Cláusula Quinta para atender el gasto anual, que como máximo ascenderá:

- En el ejercicio 2009 a 51.000 euros.
- En el ejercicio 2010 a 82.500 euros.

El IGN efectuará el abono correspondiente al ejercicio de 2009 una vez iniciados los trabajos objeto de este Convenio, y un segundo y último, al concluir los mismos en 2010, y una vez entregados por el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca de la Administración General del País Vasco al IGN, y superado el control de calidad de los datos y documentación correspondientes al trabajo completo.

Séptima.– Propiedad de la información.

Las dos partes firmantes de este Convenio Específico serán copropietarias de la información y productos resultantes de la realización del mismo.

Cada una de las partes podrá distribuir, en forma convencional o por Internet, o comercializar de manera gratuita o con coste, por si mismos o mediante terceros, la información y los productos resultantes de la realización de este Convenio Específico, tanto digitalmente como en papel, ya sea directamente o como productos derivados de los originales.

En el caso de comercialización onerosa de la información y productos resultantes de la realización de este Convenio Específico, el Departamento Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca de la Administración General del País Vasco, y el IGN mediante el organismo autónomo CNIG, armonizarán los precios públicos establecidos por cada uno para ellos.

Asimismo, los informes, documentos, información de apoyo y cualquier otra información obtenida como consecuencia de la ejecución de los trabajos previstos serán propiedad conjunta de las partes, no pudiendo ser utilizados para fines distintos a los indicados en dicho documento sin autorización previa y expresa de la otra parte.

Octava.– Comisión de Seguimiento.

A la firma del Convenio Específico se establecerá una Comisión de Seguimiento del mismo integrada por tres representantes de cada una de las partes.

Conforme a lo previsto en el artículo 27 de la Ley 6/1997, de Organización y Funcionamiento de la Administración General del Estado, la Comisión deberá incluir a un representante del Delegado de Go-

beharko du batzordean; huraxe izango da GINen hiru ordezkarietako bat.

Jarraipen Batzordearen zeregina izango da:

– Hitzarmen hau bete, ezarri edo interpretatzean sortu daitezkeen gatazka edo eztabaidak ebaztea.

– Lanerako urteko plana ezartzea, hitzarmena sinatu duten bi aldeek lanerako dituzten planen arabera.

– Hitzarmena sinatu dutenek urtean egin beharko duten gastu efektiboa finkatzea.

– Hitzarmenaren betetze-mailaren txostenak idaztea, hitzarmena izenpetu dutenei zuzenduta.

– Hitzarmena betetzeko teknologia, teknika eta ezarpen-metodoen bilakaera jarraitzea, eta bilakaera horrek gomendatzen dituen zehaztapenetan aldeei aldaketak proposatzea.

Bederatzigarrena.– Berariazko Hitzarmenaren indarraldia.

Berariazko Hitzarmen honen indarraldia 2010-12-31ra arte izango da, eta urtero berritu ahal izango da gehienez ere, hasierako indarraldi-epearen baliokidean.

Hamargarrena.– Berariazko Hitzarmena hutsaltzea eta suntsiaraztea.

Berariazko Hitzarmen hau hutsaltzeko arrazoia izango da klausularen bat ez betetzea.

Horretarako, beharrezkoa izango da aldeetakoren batek salaketa egitea. Kasu horretan, hilabeteko epea zabalduko da beste aldeak bere erantzuna eman ahal izateko, eta ondoren, iraupen bereko beste epe bat egongo da behin betiko erabakia hartzeko. Erabaki hori ematen duen ebazpenak hutsaltzea badakar, ebazpenaren baldintzak eta epeak bete beharko ditu, eta ez du kalte ekonomikorik sortu beharko ez alde batentzat ez bestearentzat.

Hamaikagarrena.– Jurisdikzioa.

Herri Administrazio Kontratuen Legearen Testu Bateginaren (ekainaren 16ko 2/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zenaren) 3.2 artikuluak espresuki xedatzen duenez, Berariazko Hitzarmen hau betetzean sor daitezkeen zalantzak eta hutsuneak konpontzeko Herri Administrazioen Kontratuen Legea aplikatuko da.

Hitzarmen honen ondorio diren betebeharrak interpretatzean edo ez betetzean sortu daitezkeen auziak horretarako sortutako Jarraipen Batzordeak ebatzi ezin izan dituenean, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren bidez ebatziko dira, dagokion jurisdikzioko Legeak arautu bezala.

bierno en la Comunidad Autónoma, que será uno de los tres representantes del IGN.

Esta Comisión de Seguimiento se encargará de:

– Dirimir los conflictos o controversias que pudieran surgir en el uso de la ejecución, aplicación o interpretación de este Convenio.

– Establecer el Plan de Trabajo Anual, conforme a los Planes de Trabajo de las dos partes firmantes del Convenio.

– Fijar el gasto anual efectivo, que deberán asumir las partes firmantes del Convenio.

– Redactar informes de la realización del Convenio dirigidos a las partes firmantes del mismo.

– Seguir la evolución de las tecnologías, técnicas y métodos de aplicación a la ejecución del Convenio, y proponer a las partes las modificaciones en las especificaciones que esta evolución aconseje.

Novena.– Vigencia del Convenio Específico.

El plazo de vigencia del presente Convenio Específico será hasta el 31-12-2010, pudiendo ser renovado anualmente hasta un periodo máximo equivalente al plazo de vigencia inicial.

Décima.– Rescisión y resolución del Convenio Específico.

Será causa de rescisión del presente Convenio Específico el incumplimiento de alguna de sus cláusulas.

Para ello, será necesaria la denuncia por una de las partes, con lo cual se abrirá un plazo de un mes para que la otra parte pueda formular su réplica y, a continuación, otro plazo similar para adoptar la decisión definitiva. El acuerdo que refleje esta, en caso de que implique rescisión, deberá contemplar las condiciones y plazos de resolución, y no debe producirse perjuicio económico para ninguna de las partes.

Undécima.– Jurisdicción.

Según dispone expresamente el artículo 3.2 del Texto Refundido de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por Real Decreto Legislativo 2/2002, de 16 de junio, se aplicarán los principios de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas a la resolución de las dudas y lagunas que pudiera plantear el cumplimiento de este Convenio Específico.

Las cuestiones litigiosas que puedan surgir en la interpretación o incumplimiento de las obligaciones que se deriven del presente Convenio y que no hayan podido ser dirimidas por la Comisión de Seguimiento creada al efecto, se resolverán mediante la jurisdicción contencioso-administrativa en la manera regulada por la Ley de la citada jurisdicción.

Eta euren adostasuna adierazteko Lankidetzarako Berariazko Hitzarmen hau sinatu dute bi aletan,

Madrilen, 2009ko irailaren 1ean.

Estatuko Administrazio Orokorra,
Geografia Institutu Nazionalaren zuzendaria,
ALBERTO SERENO ÁLVAREZ.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra,
Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza
eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

Y en prueba de conformidad, suscriben el presente Convenio Específico de Colaboración, por duplicado,

En Madrid, a 1 de septiembre de dos mil nueve.

Por la Administración General del Estado, el Director
General del Instituto Geográfico Nacional,
ALBERTO SERENO ÁLVAREZ.

Por la Administración General del País Vasco, la Consejera
de Medio Ambiente, Planificación Territorial,
Agricultura y Pesca,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

1. ERANSKINA

AGIRI TEKNIKOAK

AURKIBIDEA:

1.– Kartohiria proiektuaren xedea.

2.– Geografia eremua eta lanaren zabalera.

3.– Metadatuen sorrera.

4.– Kontratuaren xede den Kartohiriaren datu-eredua.

4.1.– Kartohiriaren geruzen katalogoa.

4.2.– Datu-eredua.

4.3.– Datu-ereduen deskribapena.

5.– Datu-ereduen eta lanen gaineko zehaztapen teknikoak.

5.1.– Atarientzako zehaztapen teknikoak.

5.2.– Bideentzako zehaztapen teknikoak.

5.3.– Zatientzako zehaztapen teknikoak.

5.4.– Kale-gurutzeen zehaztapen teknikoak.

5.5.– Eraikuntza, lursail eta masarako zehaztapen teknikoak.

5.6.– Toponimiarako zehaztapen teknikoak.

5.7.– Errolda-barruti eta sekzioetarako zehaztapen teknikoak.

5.8.– Posta-barrutietarako zehaztapen teknikoak.

6.– Emaitzak eta aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Kartohiria proiektuaren xedea.

Kartohiria proiektuaren xedea da tramadura gisa GINen BKN25 erabiliz Espainiako hiri eta herrietako errepide-sarearen datu base ofizial bat sortzea, GIS egitura topologikoarekin, bideekin eta lagundutako nabigazioa eta beste zenbait erabilera tematiko ahalbidetuko dituen testu informazioarekin, estatuko

ANEXO 1

DOCUMENTACIÓN TÉCNICA

INDICE:

1.– Finalidad del proyecto CartoCiudad.

2.– Ámbito geográfico y extensión del trabajo.

3.– Generación de los Metadatos.

4.– Modelo de datos de CartoCiudad objeto del contrato.

4.1.– Catálogo de capas de CartoCiudad.

4.2.– Modelo de datos.

4.3.– Descripción del modelo de datos.

5.– Especificaciones técnicas sobre el modelo de datos y los trabajos.

5.1.– Especificaciones técnicas para los portales.

5.2.– Especificaciones técnicas para los viales.

5.3.– Especificaciones técnicas para los tramos.

5.4.– Especificaciones técnicas para los cruces de calles.

5.5.– Especificaciones técnicas para las construcciones, parcelas y la masa.

5.6.– Especificaciones técnicas para la toponimia.

5.7.– Especificaciones técnicas para los distritos y secciones censales.

5.8.– Especificaciones técnicas para los distritos postales.

6.– Resultados y documentación a entregar.

1.– Finalidad del proyecto CartoCiudad.

La finalidad del proyecto CartoCiudad es la creación de la Base de Datos Oficial de red viaria, con estructura topológica de SIG, de ciudades y núcleos de población españoles, con viales e información textual que permitirá la navegación asistida y diversos usos temáticos, con continuidad geográfica asegurada

lurralde osoan bermatua izango duen jarraipen geografikoarekin.

Kartohiria proiektua, Estatuko Administrazio Orokorraren GIS datu-base ofizial denez, Espainiko hiri eta herrien Estatuko Administrazio orokorreko datu kartografiko ofizialetatik abiatzen da, euren hiri-egiturarekin, errepide sarearekin, loturiko informazio toponimikoarekin, kaleen izenak, atarien zenbakiak, errolda-barruti eta sekzioak, eta posta-kodeak, dena sare hidrografikoaren eta garraio-sareen bidez espainiar lurraldearen jarraipena duela, horien tratamendua eta jarraipenerako konponbiderik gabeko kudeaketa bermatzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Lurralde Eremuan GIS egitura hau ondorengotik abiatuta egingo da:

• Euskal Estatistika Erakundeak mantentzen duen Kale-izendegiaren informazio kartografikoa.

• Udaletxeetatik eskuratu eta Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) jasotako kaleen izen eta posta helbideei buruzko informazioa.

• Udaletxeetatik eskuratu eta Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) jasotako errolda-barruti eta sekzioei buruzko informazioa.

• Correos y Telégrafos Sozietate Estatalaren (Correos) barrutiei buruzko informazioa, Estatistika Euskal Erakundeak (Eustat) digitalizatzen duena.

• Komunikabideei buruzko informazioa, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri lan, eta Garraio Sailak mantentzen duena.

• Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren informazio kartografiko ofiziala.

• Geografia Institutu Nazionalaren Zuzendaritza Nagusiak (GIN) 1:25.000 eskalan duen Base Kartografiko Numerikotik (BKN25) ateratako informazioa, batez ere sare hidrografikoei, garraio-sareei eta biztanle-entitateei buruzkoa, amaierako produktuari lurralde mailan jarraipena emateko erreferentziatzat hartuko dena.

Kartohiria proiektuarekin sortuko den GIS-Datubase ofiziala kartografia digitalak kontsultarako eta nabigaziorako honako eragiketak egiteko aukera eskainiko du:

Objektuen kokapen zuzena (GeoCoder).

• Posta-helbide bati koordinatu bat esleitzea.

• Posta-barruti bati koordinatuak esleitzea (poligonoa).

• Errolda-barruti edo sekzio bati koordinatuak esleitzea (poligonoa).

• Toponimo edo intereseko puntu bati koordinatu bat esleitzea (POI).

en todo el territorio nacional, utilizando como entramado soporte la BCN25 del IGN.

